

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aurelio Arrillaga Goikoetxea

*Lekeitio,
Bizkaia
(1923-2012)*

Aurkibidea



Biografia



1923. urtean sortu zen Mendexako Marierrotan. Gurasoak ere mendexarrak zituen: ama Iturraspekoa eta aita Baurdokoa. Marierrotatik Oletara (Amoroto), Asterrikara (Berriatua) eta azkenik, Lekeitioko Eskolapera joan zen bizitzera. Hori dela-eta, eskola desberdinetan ibili zen, baina hala ere, ez zuela askorik ikasi dio. Gerra Asterrikan pasatu zuen, frontearen erdi-erdian. 16 urterekin itsasora joan zen lanera beste lekeitiar askoren modura. Marierrotako eta gerrako kontu ugari kontatzen ditu grabazio honetan.

Zintak

LEK-041

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-29
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

LEK-042

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-03-29
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Marierrotaren funtzionamendua

- **Erref:** LEK-041/002
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Marierrotan jaio zen. Bera jaio zenean, errota bakarra zegoen martxan,

artoarena; gariarena, oster, ez. Pascual Abaroarena ziren etxea eta lurrak. Marea igotzen zenean, urez bete eta marea bajatzerakoan martxan hasten zen errota. Polito ehotzen zuela dio. Ehotako portzentaje bat beraientzat izaten zen, %5a.

Transkripzioa

- Errota bi eukazan harek.
- Ta martxan euazan?
- Bat bai. Bat ibiltten zan, artuena; bestia garidxena, ez. Ha erre ein zan, ha etxia, ta geure aittak arregla eban.
- Zeuen-ta aitzak arregla eban?
- Bai.
- Ta ze pasa zan ba, erre ein zan etxia?
- Ba erreta geldittu zan ta iñok arregla be ez ta ba. Don Pascualena, Abaroana zan ha.
- Pascual Abaroena zan?
- Bai.
- Errotia?
- Bai.
- Edo baserridxa?
- Baserridxa...
- Dana zan bat?
- Dana bat, ta solua be bai. Solo aberatsa eukan harek.
- Ta solua nun eoten zan ba, Marierrotan?
- E?
- Solua nun eoten zan?
- Ba, bertan daon [haxe...] handidxa.
- Erdi parian?
- On urak erunda dauko harek danak. Ha solo haundidxa da.
- Eta ura sartzen zan han, maria etorten zanian?
- Marian gorazkuan, atia erain, tornuaaz. Ta beteten zanian, maria beheranzkuan ibiltzen zan errotia.
- Martxan hasten zan?
- Bai.
- Ta gero batzen zenduen garidxa...?
- Ba, bertako auzokuari-ta, artagarau pasaten zan, hantxe errotia. Urrunao jun bihar zan [bestelan], jun bihar zan Oletara arte, ta bertakuk, hurrakuk. Bai, Loibe goikuak ta bertakuk, bertakuk, Keleridxakuk-eta. Ba, bai. Ba politto ixoten eban harek.
- Ta akordaten zara zenbat jotzen eban?
- Bai, klank-klank, klank-klank, klank-klank ibiltzen zan.
- Ez, zenbat... zenbat jotzen eban?
- Zenbat anega edo zenbat...?
- Zenbat saku-edo, zenbat ataraten ebezan?
- Harek zaku bat artagarau bai, mari beherazko bakoitxian. Gehidxo, gehidxo, marin zaku bi be bai, ehun bat killo-edo artagarau.
- Ehun bat killo?
- Bai.
- Ta gero ze eitten zan, bertatik nora eruten zan, Udaletxera?
- Baserrittarrari, ekarten dabena artua ta, haretzek be jo.
- Ta bertan saldu eitten zan?
- Bai. Saldu ez, errotan pasau. Gero, killoko honenbeste kendu. Bost killori, ba... berrogetamar killori, bost killo-edo, lau-edo.
- Gelditzen ziñien zeuek.
- Bai geu gelditzen giñin harexeaz.

- Biharra eitten da...
- Zemategaz geratzen ziñien? Zemateko partiegaz geratzen ziñien?
- Bost edo ez dau esan ba... Zenbat?
- Zemategaz geratzen ziñien zuek?
- Ze? Artua? Ehuneko bosta, ehuneko bosta.
- Bosta?
- "Aquellos tiempos". Bestela jun bir zin, Oletara-edo... jun bihar zarien.
- Bai, edo Gixaburura-edo.
- Ta hamen hurrakuak bertara ekarten eben.

2. Errotara joateko astoak; asto-kortak

- **Erref:** LEK-041/003
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Lekeitiarrak astoz joaten ziren beraien errotara, Marierrotara. 400 bat asto zeudela dio. Asto-kortak ere bazeuden herrian zehar.</p>

Transkripzioa

- On be... astu bihar zan, ez euan automobilik-eta, ez euan automobilik en aquellos tiempos.
- Astua.
- Astua, artu beteta etorten zan astuaaz.
- Otzarakin, otzaran.
- Bueno! Lekitton eoten zan laurehun asto baiño gehidxo egunin-egunian. Beheko kalia, asto-kortak eta danak han, beheko kalia.
- Beheko kalia edo Dendari kalia. Zein zan?
- Dendari kalia? Beheko kalia.
- Beheko kalia gehidxao eta astuak. Eta hamen inguruan be eoten zan?
- Astua? Bai, bai, hamen [...] danian.
- Bai. Baiña horrek zer euen, astuk-eta?
- Bai, bai, bai. Asto-kortia hamentxe, asto-kortia. Itsuna. Ezautzen dozu itsua? Emakumia?
- Ze kale?
- Haurtxe goittik behera doiana ayuntamientura, hortxe eon zan asto-korta bat.
- Azpiri kalia.
- Bai, bai. Hortxe eoten zan Marijosen tabernin bueltarin, goratxuago, hortxe, hortxe eoten zan halakua, astua, asto-kortia.

3. Marierrotako kanalak eta ura

- **Erref:** LEK-041/004
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:05:39. **Bukatu:** 00:08:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Marea igotzen zenean, errotako kanalean mila bat tona sartzen ziren. Ura nondik nora joaten zen azaltzen du. Bospasei kanal zeuden.</p>

Transkripzioa

- Ta errotiek, esan dozu, marie igoten zala ta atie zabaldu.
- Bai, atia zabaldu tornuaaz. Bete eitten zan. Gero, maria beheran hutsittu.
- Ta hori atie zelan deitzen zan? Horreri atieri zelan deitzen jako?
- Atia esaten eutsagun /esatetsaun/ guk, ez dakit nik.
- Ez, gero [andaparia] sartzen zan uragaz.
- Ura sartzenzan kanaletan, han buelta guztidxan. Ba ura sartuko zan milla tonelada bai.
- Orduan ura juten zan kanpotik zihar.
- Handixerik, kanpotik zihar.
- Ta erdidxan euan...
- Ontxe be, ontxe be halakoixe kanala do. Barrutik.
- Ta erdidxian solua?
- Bai, barrun solua.
- Ta ze eitten zenduen solun? Ze...?
- Edozer. Erremolatxi ta patati ta piperra ta edozer. Baiñak-eta, edozer. Gero, maria goranzkun, ura ez sartzeko, eitten zan tornu zarratu. Ta zementuaz zarratuta eoten zan. Paret bi eoten zirian, hasi Loibeko errekan, ta hara arte, Keleridxara arte. Presia. On dana dao lurraaz beteta.
- Ze Keleri esan dozu?
- Keleridxa ez dakixu zein dan? Zuk ezautu dozu ha...
- A, Keleridxa... bale.
- Bai, bai, bai, bai, baserridxa. Iñor ez da bixi, e?
- Eske haraixeaiño...
- Jesus, Jesus, Jesus , [Jesus Keleridxa], ta Paulo [Keleridxa].
- Haraixeaiño eote zan e... hori, ezta?
- Bai, buelta guztidxan.
- Ze han e... kanbidxa ein dabe ta...
- Gero, nahi badozu ur eztidxa sartun, ba, goidxan zabaltzen zan. Ur eztidxa, edateko ura, sartzen zan solora. Kanalak eoten zin, kanalak, ba, hau baiño zabalauak, kanalak. Sei kanal-edo, zazpi-edo, ez dait zemat. Halaixe sartzen zan ura ta, euridxa eitten dabenian, [...], ta beste edozer baiño ariñoao sikatu. Solua. Ta gero, sikati danian, ba, goittik sartun ura ta [...] erain be ez ein, tornorik, daola. Haunenbeste falta danian beteteko, ba, para hantxe. Han behera ur asko etorten zan, [...] han behera. Han, Loibe errekatik.
- Loibe errekatik, ezta?
- Bai. Edateko urak be eon zin han, urik eran ahal zan sasoi baten. Itturridxak.
- Ba, han jentik edaten eban, itturridxan, ezta?
- Bai. Itturridxan.
- Ta gero handik gora junda, zu akordaten zara kordeleridxa eoten zana? Akordaten zara, handik gora junda, Loibetik, kordeleridxa eoten zana?
- Bai, bertan eoten nitzan ni [...], bertan. Txoridxa emon ostan zuen aittittak, kilgerua. Halako kaidxola txikitxu baten. Daukon, gaiñera, piño abolan eseitta.
- Ze eitten zenduen, ba?
- Beti ibiltzen zan txorittan ta...

- Txorittan-ta, lakaridxuk-eta...
- Bai, bai, lakaridxuk eta arrato handidxak be bai. Kaidxolan barruan.
- Ta harek sokak-eta badakixu noraako zirian?
- Haurixe ez daitt. Ni ez neuan hamen ta.

4. Marierrotatik Oletara

- **Erref:** LEK-041/005
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Beraiek Marierrotatik irten ostean hutsik geratu zen etxea eta errota. Handik Oletara (Amoroto) joan ziren, "Papelerixara". Uriola (uholde) batzuetan bere anaia bertan hil zen.</p>

Transkripzioa

- Ze pasa zan Marierrotaaz?
- Marierrota... ezer be ez. Han iñor ez da bixi ixan.
- Ta noix bialdu zaittuzen-edo?
- Han geldi egon zan ha, hutsik. Gero teillatu [...] bueno, barridxa ein zan ta gure aittek-eta. Ba, eukiko ebazen harek etxik, erreta eon zan ta, bai, eongo zan larogei bat urtin bai martxan, halakua, teillatua iñok arregla barik. [...] eukan harek. Gero zahartu zanian, baakixu.
- Ta badakixu zergaittik erre zan? Badakixu zergaittik erre zan?
- Noix erre zan? Ni jaidxo orduko. Ni baiño ariño jaidxo zian anaidxa bat, Alfontso, arrebak beste bi edo hiru bai, behintzat, berton, ta neu lau; lau, bost neuaz. Handik bialdu euskun Oletara. Oletako ha papeleridxa baakixu nun don?
- Bai.
- Haraxe baserrira.
- Hara gora?
- Bai. Ha be gero ein daben aittak eusteko esperantzia eukan, baiña etxe ona, solo haundidxa, buztia. Baakixu zer dan buztia?
- Bai.
- Teillia eitteko. Haretzek eitten. Itsasuk, urek erun danak. Horma danak apurtute, danak. Itxi ein daben. Anaidxi be hantxen hil zan, zaharrena, hamazazpi urtekua.
- Udxola-edo?
- Udxolak, udxolak.
- Errekia, ez?
- Bai. Etxia goidxan dao ta ez zan aillegau. [...] Handik gero, aittak erosiko eban ha, udxolak apurtu ez baeban. Baiña, apurtu eban eta, ia, han ez zan [...]. Bedarrik be ez zan hasi ta, bedarrik be. Dana buztia. Ta gero ein zan... gero ein zanian harek kamiñuak-eta zabaldu, lehen kamiñu estu zan, zabaldu zanian, harek lurrak haraixe botaten zirian, goi partekuak. Kamiñuk zabaldu ein zirin hor eta. Kamiñu zabaldu ta lurrak hantxen bota, ta on solo bat dao. Behian etxik be ein zirian, bi. Han behian etxe bat, bixitxa bikua. Besterik han goidxan... beste barridxa beste bat ta lehengo etxia. Hiru etxe dao han. Behiak... behiak saldu zirian.

5. Alondegia eta eskola

- **Erref:** LEK-041/009
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:15:07. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskola zaharra jausi egin zen. Gero alondegian goian zegoen beste bat, Txalaparta taberna dagoen tokian zegoen alondegia, Eskolapean.</p>

Transkripzioa

- Gasolineridxa.
- Bai, jausi zan ha be, eskola barik geldittu zan. Gero, Zumatzetako hortxe... zera, [sozidadiak... zianian] hortxen eskolak. Besterik ez da eon eskolarik. Gero ein zin harek eskola txikidax, han, portalian.
- Portalian, bai.

- Jausi ein zan. Iñor atrapa be ez, ganera. Jausi zan bere kontura, zaharren-zaharraz, bom. Hortxe, korreosen, hortxe parian.

- Bai. Eskolapin ez zan egoten beste bat?

- Bai, bai. Alondigin goidxan.

- Alondigia egoten zan hor?

- Bai. Txalaparta-edo, zein da?

- Bai. On Txalaparta...

- Hantxe goidxan eskolia.

- Behian alondigia eta goiko aldian eskolak.

- Lehen behian alondigia, ardauek eta horretxek.

- Ardauek eta saltzen.

- Ardauek Lekitto guztikuk hortxe egoten zin lehen. Alondigia.

6. Bide zaharra eta berria

- **Erref:** LEK-041/010
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:17:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Eskolapeko bidea, Gernikarantz doana, gerra aurretik egin zuten. Bide zaharra nondik nora joaten zen azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Bidia egin ebenian akordaten zara?

- Bidia? Nora?

- Gernikatik datorren bidia, Eskolapetik pasa zanian.

- Ez. Hori gerria baiño ariño ein zan.

- Ariño ein zan.

- Lehin euan bidia Goiko kaletik.

- Goiko kalin sartzen zan, bai.

- Bai, hamendik, telefoniko... bueno, lehenao gasoliñoia eon zan elixa atzian, haren goittik zihar horra, zubira. Ha zubidxa bai [akorduan] daukat. Ha zan zubidxa ezer be ez, estua ta ezer be ez, automobil bateaz... Gero ein daben, ba, haixiak, haixia daonian, zelan barandauak egon zirian honek burdiñazkuak? Ba halakukin ipiñi. Gero ein daben, zabaldu. On zubi ederra dao.

- Bai, on zubidxa zabalduta.

- Bai. Ta tabernia ontxe daon lekuan eon zan, han zubidxan.

7. Aguazilak

- **Erref:** LEK-041/012
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:17:44. **Bukatu:** 00:18:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

<p>Aguazillak non egoten ziren azaltzen du. Astoz herrira sartzen zirenei kobratu egiten zieten.</p>

Transkripzioa

- Ez zara akordaten han aguazillak egoten zirila?
- Zertzuk?
- Aguazillak.
- Bai, bai, bai. Aguazillak han ta Santa Katalinan, kobraten. Plazara datozen baserrittarrak-eta. Bestia eoten zan Goraburuko zinia baiño goratxuo. Antigueneko, Antigueneko baserridxa eoten zan han. Han egoten zan Domingo aguzilla, ta zubidxen eoten zana... zein egoten zan? Juan aguazilla, ez dakitt, Juan aguazilla-edo. Portalian beste bat. Akabo! Hiru halako, aguazillak, kobraten. Hiru txori handi-edo ez dakitt zenbat ixaten zan, erril bat-edo. Astuari kobratzen.
- Sartzen zirinak, ezta?
- Bai, bai. Sartu ingo zirin Lekitton laurehun asto bai egunin-egunian.
- Ta horrerri kobra ein bihar ixaten jake, ez?
- Klaro. On ez dakitt zelan pagaten deuten. On ez dao, plazi dao on.

8. Lekeitio zaharra

- **Erref:** LEK-041/013
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Gaur egun merkatu-plaza dagoen tokian erreka zegoen eta arropak bertan garbitzen zituzten. Pascual Abaroa alkate zela hainbat azpiegitura egin zituen herrian, merkatu-plaza, besteak beste. Asto-kortak ere bazeuden, autorik ere ez zen egoten-eta. Astoan eta zaldiak nondik nora joaten ziren kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Ha on daon plazia, lehenao hori zan erreka erropak garbitzekua. Harek Tesok alkate eon zanian ein eban erreka kendu, urek ipini herridhan, ure nahi dan beste ta, gero, hori ein, plazia, merkaua ein. Lehein eitten zan aiuntamientun azpidhan plazia, euridxa danian.
- Bai [...].
- Aiuntamientun azpira. Ta elixapin be bai.
- Elixapin, ta bertan kontzidopera etorten zirin?
- Bai.
- Astukin eta plazan ipintzen ebezen.
- Bai. Gero, asto-kortia hamen gora, asto-korti euan, itsuna. Zuk ez dozuzen ezautu, [...] itsua. Gorotxuo be eon zan, ba, asto-korti, hamentxe, hori bestiori, hori almazen haundi bat zan. Honek etxik...
- Konpañiko...?
- Ondun dozenak, honek, [baakixu zein dozen] harek. Harek... han eoten zan karrokotxiak. Honenak, zelan ixena eukan harek, ixena? Dana dalakua. Karrokotxik-eta eoten zin. Lehena ez euen automobilik be ez, ta ezer be

ez, hori, karrokotxiak baiño.

- Zaldidxakin?
- Zaldidxakin.
- Bai, esnedunak...
- Goiko kaletik zihar pasaten ziran hona, zein da hori?
- Gamarra kalera?
- Kalle Artolara.
- Artolara?
- Artola. Handik zihar Zumatzetan gora, Antiguaneke han gora Aldastorrera, Aldastorretik, Gardatako bide zaharra? Ha zan kamiñua lehen.
- Han be, ez zan egoten taberna bat?
- Hau gerria baiño ariñao einddakua da. Ez naz akordaten [...]. Eindda eon zan nitxikidxa nazela.

9. Taberna zaharrak

- **Erref:** LEK-041/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Gardata auzoko tabernako nagusia Antonio zen. Sagardaua saltzen zuten. Moilan eta herrian ere pare bat lekutan saltzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Taberna bat egoten zan.

- Bai, bai, bai. Hori... Antonio eoten zan han. Tabernia, aizta bi. Ha ixaten zan taberna bat, txikitxu zan, baiña haraxe juten zan sagardaua eraten dana jentia, sagardaua saltzen dabela han ta. Zubidxen be sagardaua saltzen daben, moillan, moillan be bai, hiru lekutan-edo. Leku [gitxittan euan] sagardaua. Hamen be bai [Moeteneko] tabernan, han beheian, han Bizkalian, batzokidxe baiño haratzatxuao. On etxe barridxe doiaz han, asto-kortan. Asto-korti zan lehenao han.

- Hori Agarrenekuk euki ebana fruteridxa?

- Fruteridxa? Ha Agerreneku zan. Etxe barridxe eindda doz han. Ha [...] etxiek, teillatuk eta hormak eta itxi detsez eta eitten, eitten dao han etxiak.

- Ta hor zan, hori zan asto-kortia be bai?

- Bai, bai, asto-korti hortxe be bai. Haretxekin bixi zin harek. Ondik bixirik dao harek. Harek asto-kortia euki eban. Jauregi, Jose Mari Jauregi.

10. Artoa irindu arteko prozesua

- **Erref:** LEK-041/019
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:26:13. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Arto-errotak funtzionatzen zuen Marierrotan. Artoa zelan txikitzen zuten eta zahia zelan egiten zuten azaltzen du. Ehotakoa zakuetan sartzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Artua beteta eoten zan han goidxan ta, klak-klak, joten dau golpia, ta hiru-lau artagarau barrura. Ta hiru-lau barrura ta hantxe. Hantxe apurtzen harri bi, bat behetik ta bestia ganetik, harridxak. Hantxe haustu, hantxe haustu harridxak.
- Ta batzutan urune fiñaua ixengo zan ta beste batzutan ez.
- Ez, gero galbahin pasau biher ixeten zan, ha nahi bazu ein... [hautsittu hori]. Ta [ha izeten] zan zahidxa, ha sobrantia, azala ta horrek, zahidxa.
- Ta hareaz ze eitten zendun?
- Harek ganaduntzako. Bueno, ha lehelengotan baserrittarrak osorik eruten daben, daon moduan. Gero baserridxen pasaten daben galbahian.
- Ta urteten daben ha uruna zakutan ipintten zenduen?

11. Errotarriak

- **Erref:** LEK-041/021
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:28:56. **Bukatu:** 00:30:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Errotarriak zotza eta zintzelarekin pikatzen zituzten. Harriak Milloi (Berriatua) aldetik ekartzen zituzten, ez zuen edozein harri motak balio.</p>

Transkripzioa

- Han pika? Gastaten zanian, pika hori geldi-geldi, geldi-geldi pikaten zan.
- Zereaz?
- Zotza ta zintzalaz edo pikatiaaz apurtu barik bera harridxa. Joten badozu, apurtuko da bestelan ta. Harri halaku zan, garratza.
- Ta nundik ekarten zenduen horrek harridxok?
- Horrek ein eitten daben kanteran.
- Non, ze kanteratan?
- Ba eitten daben hortxe, Milloi partetik, hortitxik eitten daben.
- Handik etozen?
- Bai, bai, hantxe. Harri diferenti ixaten zan, baltza. Besti karatxarridxa, lisotu arin eitten dana, bestia, ba, garratza. Han ipintzen zan harridxa, han ta kanalak bidxetan. Kanaletan juten zan gero eta estuo, estuo, estuo, uruna hortik zihar.
- Eta artagarauek sartzen zenduezan hori kajieri, zelan deitzen dotsazue horri?
- Horixe ez dotsut esango. Artagaraua botata egoten zan, beteta. Ta gero holako palo batekin eitten da klak-klak, [...] ta kanala, joten dabenin klak-klak-klak ta harek botaten dau artagaraue hantxe, klak-klak artagarauk jausten zirin.

12. Artoa eho, pisatu eta asketan gorde

- **Erref:** LEK-041/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:32:04. **Bukatu:** 00:34:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Errotarriak bi izaten dira: azpikoa geldi egoten da eta goikoa mugitzen da. Artoa botatzen zenetik zelan pasatzen zen errotarrietatik. Balantzako pisua erabiltzen zuten. Bezeroak eroandakotik parte bat beraientzat izaten zen, ordainsari gisa. Irina asketan gordetzen zuten.</p>

Transkripzioa

- Harridxa, harridxa geldi eoten zan, bat geldi eoten zan behekoa; goikua ixaten zan ibiltzen zana. Goikuak. Eta eukitten ebazan, halako kanalak eukitten ebazan harridxak, lau bat edo. Ta ailleaten zanian "klank", besti aillaaten zanin "klank", eta artagaraua goittik behera. Han eoten zan enbudo bat, esatia modura, goittik behera sartunda.
- Bai, horixe ba, [...]
- Ehun bat killo-edo.
- Zelan deitzen eutsazuen horretxeri, artua sartzen zan lekua?
- Ixena bai, baiña ahaztuta daukat nik horrek.
- Enbudo...
- Enbudua. Artagaraua, artagaraua hantxe hutsitzen zan, danari eitten eutsan klank-klank". Eta gero pixua eoten zan alderdi bidxetan, haulako pixu bat.
- Zelako pixua erabiltzen zenduan ha pixateko?
- Balantzan anegua. Eitten zan, ba, pixaten danian, honenbeste killo, ba, berrogeta hamar killo edo berrogei killo halakua. Gero kendu eitten zan bat, bost killoku-edo, harek, ha [kendu] eitten zan. Haren errestua norberentzako ixaten zan. Berrogeta hamar killori, ba, bost killo-edo, ez dakitt zenbat ixaten zan.
- Ta uruna nun gordeten zan gero?
- Bertan askan.
- Askan?
- Askan. Ta paliaaz bete zakua.
- Zenbateko askak ixaten zien?
- E?
- Zenbateko askak?
- Zenbat denporan?
- Zenbateko kapazidadie?
- Askia? [Asike] kapiduko [zien] ehun ta berrogeta hamar killo be bai, uruna. Askia, idxa, honenbestekua-edo. Honenbeste ez, baiña hamendik eta harako beste bai eta honenbeste zabaleria, eta haraxe juten zan uruna.

13. Malutak koltxoia egiteko edo atunetarako

- **Erref:** LEK-041/025
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:35:53. **Bukatu:** 00:36:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Artoaren zati guztiak aprobetxatzen ziren, baita irinetarako balio ez zutenak ere: ganaduarentzako, koltxoiak egiteko edo karnatarako (atunetarako)...</p>

Transkripzioa

- Ganaduntzako.
- Ganaduntzako.
- Soka [zaharra hartu] ta ganaduntzako, behi bi euazan ta.
- Ta, gero, malutak? Malutak?
- Malutak, behidxak jaten daben batzuk eta bestiak... koltxoa ein.
- Koltxoa eitteko.
- Etxian, etxian koltxoiantzako malutia. Lehen mollezkorik ez zan eoten, malutezkua. Astinddu ta dzanga! barrura.
- Baiña malutak be erabiltzen zirin Lekiton itsasorako?
- Bueno!
- Atunetarako.
- Atunetarako be bai.
- Eitten zirian aparidxuak-
- Bai, bai, bai. Harek itsasorako eitten zirian, malutak bigunenak apartau eta lejitan ipiñi, zuri-zuridxa eoteko.
- Eta gero?
- Gero orrazi bateaz orraztu, atunetarako.
- Malutak. Horretxeaittik deitzen jako...
- Bai, ta harek malutak, bestiak, ba, onenak aparta eta bestiak ganaduentzako-edo, jaten dabe neguan behidxak.

14. Malutaz egindako koltxoi gozoak

- **Erref:** LEK-041/026
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:37:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Malutaz egindako koltxoiak zelan egiten ziren azaltzen du. Astindu egin behar izaten zen, etzandakoan dena zapaltzen zen-eta. Artilezko koltxoiak baino beroagoak ziren, ez zuten mantarik ere behar horrelako koltxoiek.</p>

Transkripzioa

- Ta koltxoiak esan dozu. Zelan eitten zien?
- Malutiaaz, sartun haulako maluti ta bajatzen zanian ta gero hau ta astindu ta ostera be dzanga! barrura. Honenbesteko alturia bai, ta, gero, behe-behien geldittuten zan.
- Eta maluta hutsagaz eitten zan edo beste zeozer sartzen zan?
- Ezm ezer be ez, maluta hutsaaz. Gero fundia, haixe bete malutiaaz. Gero, lo eitten zanin, zapaldu eitten zan, ta, gero, astinddu haunetara ta eindda euan ohia.

- Jo be bai, ezta?
- Ez, harek ez, lania bai, ardidxena.
- Eta gero, arto bixarrak zetako?
- Ohirik beruenak malutiaaz.
- Lania baiño beruao?
- Baitta, baitta, asko be. [...] malutian ta bero-bero, mantarik be ez dozun idxa bihar, gaiñera.
- Lanian umedadia geratzen zan.
- Halako malutiaz, honenbesteko alturia [hartzen eban] koltxoiak, gero bajatu eitten zan.

15. Hiru estanko zeuden

- **Erref:** LEK-041/030
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:43:58. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Eskolarako liburua, katona, eta gainerako materiala estankoan erosten zuten. Hiru estanko ditu gogoan, non zeuden azaltzen du. Burko-azalarekin (almohada) egindako zakuarekin joaten ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta libururik-edo?
- Guk normalian erosi, halakuak, katona-edo lehelengoko 'aeiou' eta holakoixiak.
- Eta nun erosten zenduen ba?
- Estankuan.
- Estankun saltzen eben?
- Bai, lapixak-eta estankuan.
- Zenbat estanko euazan orduan, bat? Estanko bat?
- Lekitton? Bai hiru be bai. Goiko kalia bat, goiko kalia, ezagututen dozu Mari, Mari? Anton, bestia Arranegidxan. Ontxe hil da ha estankeria, Arranegikua. Eta beste bat eon zan auntxe pasteleridxa... zein da hori? Hori, loteridxa-eta saltzen dabena. Hantxe eon zan beste bat.
- Ta orduan bertan erosten zenduezen liburuak?
- Bai, estankutan. Lapixak-eta, baakixu. Txori txikidxa, iual, lapixa, baiña txori txiki... ia. Lapixa zorroztu ta, igual erdittik bi eitten zan lapixa.
- Kutxilluagaz, ezta?
- Bai, zepilluaaz.
- Ta eskolara gustora?
- Eskolara jun [...], poltsarik be ez [euan[orduan ta ezer be ez. Zakua.
- Zakua?
- Zakua etxin eindaa, almuada azalaaz-edo.
- Zeren azalagaz?
- Almuda azalaaz, almuda azalaaz.
- A! Almuda azalagaz.
- Ordun ez euan dirurik be. Ordun bost pezeta asko zan.

16. Jatetxe, hotel eta zinema-aretoak

- **Erref:** LEK-041/031
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:46:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Eskolara goizez eta arratsaldean joaten ziren. Bazkaltzen etxera joaten ziren. Ez zegoen jatetxerik inon jan ahal izateko. Lekeition Leihope dagoen tokian zegoen hotela. Beitia hotela dagoen tokian zinema zegoen. Goraburun ere bazegoen zinema-aretoa.</p>

Transkripzioa

- Jatekua eruaten zenduan eskolara?
- Nora? Ez.
- Zenbat denbora egoten zifien eskolan?
- Ba, goixian, goixin beatzitan sartun ta hamabidxetara arte-edo, eta, gero, arratsaldian ordubidxetan sartun ta arratsaldeko bostetara arte.
- Ta bazkaldu?
- Bazkaldu, etxera. Han ez euan restaurenterik lehenao, Lekiton restoran, baakixu zer eoten zan lehenao? Hamentxe kalin daona, Klementenekua, Leihope. Baakixu nun daon? Haixe zan lehenao hotela. Hotel Beitia, on hotel Beitia, ze lehenao txikidxa zan ta. Zinia hantxe eoten zan. Ha zinia be [gerran] hau eindda dao on, alkilla [...].
- Gero Goraburun be eoten zan zinia.
- Goraburun bai, bermitarrak. Ha bostetaku zan. Ha bestia zarratu ein daben, ta ein daben zine barridxa, han, Zumatzetan, zinia. On be hantxe dao, txiki bat.
- Bai, bakarra.
- Gero, ha Beitiakua zarratu eban ta ondik han dao ha, iñor ez da sartun barruan, automobilik be ez, ta ezer be ez.

17. Eskolan zigor gogorak

- **Erref:** LEK-041/032
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:46:36. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Eskolako zigorrak gogorak ziren: belauniko jarrita jotzen zieten atzamarrak odoletan utzi arte.</p>

Transkripzioa

- Eta eskolan, kastiguetak-eta eukitten zenduezan?
- Kastiguak bai, bai, belauniko parata. Ta halako regliaaz atzamarrak zabaldu ta jo, ta, ba, odoletan atzamarrak be. Maixuk gaiztuk zirian. Erakutsi niri bat be ez, hantxen jesarritta eon ta emoten eutsuen pizarra

zati bat. Pizarrarik be ez zan eoten, apurtu eitten zan ta, ta pizarra zati bateaz hantxe, pizarra zatidxaaz.

- Kuadernorik be ez zenduen eukiko.
- Ez, kudernua, bai beren... berak eukitten zittuan kuadernuk eta halakuk. Ganetik haxe, ixena eitteko, ba, berena markateko, ta hantxe ganetik, tintiaaz. Tinteru eoten zan, ha beteten dan tintiaaz ta potua mahaidxan ibiltzen zan. Tintia be, lapi... haulaku, tinteru be, haulako puntakuaaz, tintiaz.
- Plumia-edo, zelan zan?
- Bai, plumiaaz.
- Ta horrek kastigiek, zer dala ta?
- Ba gaiztuk garelakuan, eurak zer esan be ez ta...

18. Lekeition euskara hutsean bizi ziren

- **Erref:** LEK-041/033
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:48:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Lekeition inork ez zuen egiten gaztelania eta zigortzeko arrazoi nahikoa zen. Bere gurasoak ez zekiten gaztelaniaz. Lekeitioko lehenengo erdaldunak zeintzuk izan ziren aipatzen du.</p>

Transkripzioa

- Erdaldunak ibiltzen ziran.
- Igual euskeraz zuek berba?
- Ta guk euskerarik, ez gendun eitten herri guztidxan iñok erderarik, danak euskera baiño. Hamen erderi zer zanik be ez ekidxan iñok. Gure amak ez ekidxan, behintzat.
- Ez?
- Ta aittak be ez euskerarik, edo erderarik. Gure aitta Ameriketara eondaku zan ta harek amerikano bai, amerikano amerikanun modura. Zortzi urte ein dabezen ta, Nueva York-en etxiak eitten.
- Etxiak eitten Nueva York-en?
- Bai. Gure amak eskolarik ikusi be ez kontu egizu /kontixu/. Partikular euskeraz, partikular. Baiña euskera, ba, erderarik ez akixen iñok eta, hamen [ez auen noregaz ein ba]. Hamen eon ziran, Lekiton, erdaldunak, gazte zuri bat. Petra `Kakamerke´n gixona lehenao etorren ta bestia, hori, Angel barranderua lehenao esan dotsona. Ezagutuko dozu iual, Nikasio-ta.
- Nikasio, bai.
- Haretxen-ta aitta.

19. Dotrina euskaraz

- **Erref:** LEK-041/034
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:48:51. **Bukatu:** 00:49:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Dotrina elizan, sakristian, ikasi zuten. Eskolan ez zuten dotrina jaso euskaraz ikasten baitzen eta maisuek ez zekiten euskaraz.</p>

Transkripzioa

- Dotriña?
- Dotriña, abadiana jun bihar elixara, sankristidxara.
- Eskolan ez?
- Ze erakutsi? eskolan bat be ez. Esan dotsut, ba, han dotraiñi euskerazkua ixaten zan; harek ez ekidxen euskerarik. Ikesi be ez. Zelan ikesiko eban, ba, erderaik iñok ez eban eitten ta!
- Ta asko juten ziñien elixara?
- Bai, Amorotora.
- Amorotora?
- Amorototik handik zulutatik papeleridxa, baakixu nun daon?
- Bai. Handixerik gora, Amorotora, ta gero ostera be bazkarittan etxera, arin-aringa, arin-aringa goruntz ostera be.
- Jolin!

20. Errepublika garai ona izan zen

- **Erref:** LEK-041/035
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:49:36. **Bukatu:** 00:53:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Bide asko Errepublikan egin zituzten. Ordura arte harrizkoak ziren. Bizikletan ere saltoka joaten zirela dio eta harriek salto egiten zutela. Espainiaren momentu onena Errepublika garaia zela dio: nahi zuena joan zitekeen eskolara, lan eginda kobratzeko arazorik ez... Abadeek garai hartan ez zuten indarrik</p>

Transkripzioa

- Amorotora mendittik zihar. On Mendixako hau kamiñuau, Amorotoko kamiñua-ta arreglata doz, baiña lehenok dana zan harridxa. Errepublikan ein dabezen arregla honek kamiñuak. Hamen Oletatik eta Milloira ta Markinara dana harridxa. Dana saltuak-ta, gaiñera, Mendixan, gaiñera, Errepublika baiño gero asko eindakua da. Mendixako kamiñu be dana harridxa! Bixikletan be saltoka etorri bihar ta goruntz ezin ion bixikletan. Harridxe-eta, dana harridxa, dana harridxa, kanteria dao hor Mendixan ta bota ein zan haxe harridxa ta. Republikan... Espainia onduen eon zana, bixi, eon be bai, Republikan. Hamalau urtetik aurrera danak geuazan halakotuta, eskolan danak, nahi dabenak jun, hamalau urte arte eskolan ibili nintzan ni. Ta gero aseguru be bai. Republikak obliga eitten daben, biharra eitten baozun. Kabanen edo han edo edonun eitten badau be, biharra, ba, obliga eitten daben. Fabriketan, behintzat. Hamen, gerria amaittu zanian, iñok ez eukan halakorik, sartzekorik. Republikakuk, biharra ein dabenak, hillabete

ein dabenak be, kobra eitten dabe, ondiok bixirik doz, neure koiñatik-eta kobra eitten dabe. Aunke sea hirurogeita hamar milla pezeta edo hirurogei milla pezeta, dana dalakua, hillian. Nire andriak ez eban eitten biharrik kabanen, kridxada baiño, ta kridxada be lau txori txiki irabazi ta aseguru barik. Hamen don Pascual [...] ibiltzen zan, hillin bost ogerleko eukan kridxadak. Honek, Txirrin, Txirrin, Txirriñekuak eta hortxe ibiltzen zirinak. Bost pezeta edo bost ogerleko hillian, ez asegururik, ezer be ez.

- Ze gomutaten dozu zuk Errepublikakua?

- Ba, banderi be errerepublikakua zuan Errepublikan. Eskolan be bai, gorridxa, marroia ta bestia horidxa-edo, ez dait zelan zan.

- Ta erretratuak?

- E?

- Erretratuak?

- Erretratuak?

- Ez zeuazan erretratuak ipinita eskolan?

- Erregie kendu...

- Bai, banderia bai, bai, banderia altzau republikanua.

- Alfonso XIII. be kenduko eben?

- Ta lau urte [...] Republikiak, e? "Del año treinta y uno al treinta y cuatro".

Gero Republikiak irabazi eban, oster a be, botaziñoia. Askoaz, gaiñera, irabazi eban bigarrenian. Gerria atarau. Abadiak be Errepublikan ez eukan sueldorik, karidadia. Ta baserriarrak, ba, honenbeste gari-edo emon bihar, honenbeste, bost killo-edo, dana dalakua, ta baserri asko eoten zan lez, ba, pillua hartzen zuan. Elixan be abadiak pasa bir eban halakua be, bandeji be, eurentzako. On, abadia asko eoten zan Lekitton.

21. Aldare bakoitzeko abade bat

- **Erref:** LEK-041/036
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:53:11. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Lekeition aldare bakoitzean abade bat egoten zen. Lehen meza goizeko bostetan edo seietan izaten zen. Meza nagusia beranduago. Guztira 14 bat aldare zeudela dio.</p>

Transkripzioa

- Horixe, zenbat abade egoten zirin? Asko, ezta?

- Lekitton? Altar bakoitxian bat. Zortzi altara badaoz, zotziren baten eoten zirian. Altara nagusidxa ez zan eoten ezer, meza nagusidxa bakarrik, ta akabo. Bestin danian.

- Hori domeketan ixaten zan meza nagusidxa?

- Meza nagusidxa, bai, domeketan.

- Domeketan eta jai egunetan, ezta?

- Bai jaidxak dizenian meza nagusidxa.

- Ta ze orduten?

- Ordua, ez dakit ba, hamabidxak edo.

- Bai?

- Bai, berandu eoten zan; ez, hamar ta erdidxak.

- Baiña armosua, armosau barik juateko, berandu?
 - Ez, meza nagusirako... mezetia hasten zan goixeko seiretarako, mariñeruntzako, goixeko bostetan, iual. Jun biharra papardutan ta, ba, goixian, alban.
 - Eske goixetan...
 - Bai, bai.
 - Mezi entzunda jun bir ixaten zirian.
 - Baiña [...] bat eoten zan, bakoitxa altar, hamen mezi emoten, han mezi emoten, bat amabirjiñenian ta bestia ez dakitt zein dan, bestia San Antonion, danak martxan.
 - Altar guztidxetan euazan?
 - Bai, bai, bai. Lekitton altarak [...] asko. Lekitton danetara badaozen hamalau altara-edo, eta on ez doz hamarrik be, kontu egizu /kontixu/. Etxin atzin daukatz hogeta [...].
 - Kapillak diñozuz?
 - E?
 - Kapillak diñozuz?
 - Bai, kapillak.
 - Santa Ana.
 - San Antonio, amabirjiña dao atzeko, elixin atzeko partian, altar nagusidxen atzian.
 - San Pedrona.
 - Ta hiru edo lau.

22. Don Pascual Abaroa

- **Erref:** LEK-041/037
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:55:00. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

<p>Don Pascual Abaroa alkate zela eliza luzatu zuen. Bere estatua hori Errepublikara garaiaratu jarri zuten, 1934. urtean, eta Aureliok gogoan du une hura.</p>

Transkripzioa

- ... altara daoz atzian, harek azkenengo einddakuak, honek, Abaroak. Don Paskual Abaroak ein daben elixia luzatu, ta elixapia be bai ein daben. Harexeaittik dao han, plazan, ipinita beren halakua Ha ein daben, bere estatua ipiñi daben Errepublikan. Akorduan daukat, papelak eta periodikuak-eta sartu ebazen barruan. "El año treinta y cuatro". Gerria hasi zan, trentaiseisian hasi zan.
 - Zuk sasoi hori zelan gomutaten dozu?
 - Gazti nazun ta, hamabi bat urte efo ha ein zanian, [artun ta ipini dabenian], hamabi urte edo, ez daitt, ba.
 - Hamahiru, hamalau...
 - Ba, bai.

23. Soldaduak etxean

- **Erref:** LEK-041/038

- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:57:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerran Asterrikan egon zen eta bertan zegoen frontea. Leihoetan tabloiak zituzten jarrita balak ez sartzeko. Kortan, ira artean, soldaduak izan zituzten lotan.</p>

Transkripzioa

- Ta zelan bixi izan zendun zuk hori? Gerria zelan bixi zendun?
- Gerria? Nik baserridxan eon nazen, Asterrikan. Asterrikan.
- Asterrikan frentia euen...
- Bai, frentia bertan. Jo ta balkoi be behian ganera bota eban baten kaiñoiak. Ha, bentanak ipiñi, tabloiak, oihan dauen lekun balak sartun ez daixen. Danak balitxe, hantxe bala tartian.
- Zu gazti ziñan ta ez ziñan juan.
- Ba nik hamabi urte bertan urtian, gerria hasi zanian, hamabi urte.
- Baiña eingo zenduan zeozer, frentera-edo juten ziñien gauzak eruten?
- Ez, ez, ez.... Txarridxari han jatekua, arroza-ta, han Asterrikan han txarridxentzako jateku botaten daben han behera, soldauak, arroza ta okela zatidxe eta. Jan edarto! [Tejabanan] be bai. Etxin [...] koziña euken ta hantxe. Konpaiña bakoitxak koziña bat.
- Zuek nortzuk euki zenduezan etxien?
- Lo eitten? Lo eitten soldauak egoten zirin han kortan, iratzan.
- Ta zer, milizianuek edo...?
- Soldauak, milixianuak. Miliziano... Itxasalde-ta egon zirian, Itxasalde, honek.
- Batalloia?
- Bai, honek, e, bertokuak, Itxasalde. Han goidxen, bestien, Kalamendin, horrek, asturianuk be bai. Baten lau-edo hil zirian, asturianuk, sartun kaiñoi-ta Kalamendin. Han Asterrikan bertan mendi bat, Kalamendi. Sartu kaiñoie ta lau soldau hil. Beti eguzki berotan be guardasolaaz ibiltzen zan; `Paraguas´ deitzen otsaun. Ta haixe be atrapa eban. Gero elixia, Lekittokua edo..., bai Lekitton eon zan, abadia, Amorotokua, txikitxu bat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-07-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com